

Euskara zaharra

JOAKIN GORROTXATEGI

UPV/EHU

1. Sarrera¹

Ezer baino lehen, “euskara zaharra” izenburu honen azpian ulertzen duguna, ez da erabilera oso zabal batean uler daitekeen gaur eguneko ez den edozein euskara zahar; nahiz eta XVI. mendeko euskara ‘zaharra’ izan, hemen hitza Antzinatean kokatzen diren lekukoei ezartzen zaie zuzenki.

Baina bestalde, ez naiz mugatuko bakarrik euskara zaharra izan zitekeenaren berri ematera; Pirinioetako hizkuntza egoera osoa izango dut hitzpide, puntu askotan gauzak ezin direlako erraz bereiztu eta batez ere, garrantzi handiago duena, euskara zaharraren berri emateko testuingurua ezagutzea behar beharrezkoa delako.

Gainera, Pirinioetako hizkuntzez hitz egiterakoan pentsatzen dut ez dela hizkuntzarik, bertako kontsidera ahal izateko, euskarak baino eskubide gehiago duenik. Gauzak ez dira beti horrela ikusi. Gure zaharrek, Oihenarte eta Larramendi tartean zirela, uste zuten euskara Hispaniako baskoien hizkuntza zela, soilik, gero Erdi Aroaren hasieran, VI. eta VII. mendeetan, iparraldera inbasioen bidez zabaldu zena. XIX. mendean Luchaire eta beste ikerlari batzuren lanei esker, garbi asko azaldu zenean Akitaniako, eta batez ere, Ipar Pirinioetako hizkuntza zaharra —Zesarren eta Estrabonen hitzetan inguruko galiar hizkuntzatik bereizten zena— euskararen leinukoa zela, hizkuntzaren kokagunearen pisua hegoaldeetik iparraldera igarotzen hasi zen. Batzuk mugimendu hau azken muturreraino eraman nahi izan dute, euskararen jatorria eta kokagunea Iparraldean jarritz, handik alderantzizko inbasioen bidez hego Euskalherriarantz zabaltzen zelarik Antzinate berantiarrean. Lekukoei arretaz

¹ Idazlan hau Hezkuntza eta Unibertsitate Ministerioak finantziatutako HUM-2006-13424-C04-03 Ikerketa Projektuaren barruan egin da.

begiratzen badiegu, ordea, uste dut, zentzuzkoena euskara zaharra Pirinioetako alde bietako maldetan bizi zela pentsatzea dela.

Beraz, Lakarra jauna maisutasun osoz aintzineuskaraz mintzatu bada, hau da, leku eta toki ezagun gabeko protohizkuntzaren ezaugarriak azaltzen jardun badu, niri, ordea, espiritu puruen erresumatik jaitsiz lekukoaren errealitatearekin lotuta dauden aldeak azaltzea tokatzen zait: eta hori bi ikuspuntu ezberdinetatik, barnetik zein kanpotik. Alde batetik lekukoei galdetuko diegu hizkuntzaren beraren gainean eman dezaketen informazioaz, bestetik hizkuntzaren zabalguneez eta inguruko hizkuntzekin izan dituzten harremanez arduratuko gara.

2. Lekukoak

Betidanik kezkatu nau antzinateko informazioa erabiltzeko orduan lekuko horiei buruz daukagun fidagarritasuna zenbaterainokoa den jakiteak. Kontuan izan behar dugu Antzinateatik bertatik zuzenean heldu zaigun informazioa, urria eta pobrea izateaz gain, gehienetan isolatua dela, testuinguru gabekoa. Zer esanik ez, informazioa zeharkakoa denean, iturri klasikoaren bitartez ezagutua, greziar eta erromatarren kultura edo hizkuntza galbahetik igarotakoa denean. Gehitu horri guztiari toki izen horiek testu transmisioan jasan ditzaketen itxuraldatzeak eta ez zaigu ulertzen zail egingo tentuz jokatu behar izatea Antzinateatik datorkigun lekukoaren aurrean.

Pirinioetako bi aldeak

Lekuko zuzenei dagokienean, ezaguna da Pirinioak bi zati arras diferentetan banatzen direla:

1. ekialdean, Andorreatik Mediterraneora bitartean, nahikotxo dira bertako hizkuntza zaharrea idatzirik heldu zaizkigun idazkiak: hauen artean, Zerdainako haranean, arkaitzetan grabaturik agertu diren inskripzioak nabarmentzen dira. Kokagune inguruagatik eta funtzioaren aldetik nahiko bereziak badira ere, parekotasun guti dutelarik gainontzeko iberiar testuen artean, hizkuntzaren aldetik ematen du iberieraz daudela idatzita, Kataluinan eta Narbona inguruko lurraldean K. a. iv mendetik aurrera ezagutzen diren testuak bezalaxe. Zerdainako idatziez gain, oso ugariak dira Narbona inguruko zenbait hiri eta gotorlekutan aurkitutako idatzkiak: Ensérune-n esaterako

375 inguru agertu dira, berunezko xafletan idatzitako testu luzeak barne. Ugarritasun horretara heldu gabe, inportanteak dira beste toki batzutan agertutakoak ere: Pech Maho-ko berunak, Elne eta Perpignaneko idatziak (ik. Untermann 1980).

Narbonaldeko iberiar testuak, batez ere K. a. III. mendetik aurrera idatzi zirenak, oso esanguratsuak dira beste arrazoi batengatik: bertan grabatu ziren izen propioek garbi erakusten dute, iberiarrak ez ezik galiar leinuko populazioa ere bizi zela. Izenak besterik ez dira, baina **asetile**, **auetifís**, **touto**, **katuré** bezalako pertsona izenek garbi erakusten dute galiar populazioaren presentzia. Uste dugu galiaraz hitz egiten zutela, nahiz eta galiaraz idazteko gai ez izan: euren hizkuntzan mintzatzen ziren arren, beste batean soilik, alegia iberieraz, egiten zituzten idatziak.

Noiztik dauden lurralde horietan galiar leinuko populazioak ez da gauza erraza jakiten. Beti lotu izan da galiarren etorrera, iturri klasikoan arabera, Tolosako *Volcae Tectosages* izeneko populuaren etorrerarekin K. a. III mendean.

Baina, azken urteotan zenbait arkeologoren teoriari erreparatzen badiegu (Garcia 2004), ikusiko dugu zeltiarren presentzia (agian ez zuzenean galiar leinukoa) lehenagokoa izan zitekeela Galia hegoaldean.

Kontu iluna da, bestalde, hirugarren motako populuaren presentzia, hau da, ez iberiarra ez galiarra dena, baina nolabait bertakoa edo dei genezakeenarena. Honen berri lehenengo aldiz eman zuena J. Untermann (1969) ikerlaria izan zen, testuek berek erakusten duten zenbait zatiri erreparatu ondoren. Konturatu zen lurralde honetako testu askotan (Ipar Kataluinakoak barne), —gainontzeko testuetan ere agertzen ziren— iberiar izenez gain, eta galiarrak ere kenduz, bazirela beste batzu paralelo garbirik gabe gelditzen zirenak. Uste izan zuen izen horiek bertako populazio eta hizkuntzaren isla zirela; izen propio horiek Ligurian geroago erromatarren garaian² dokumentatuko diren izen propio batzuren antza dutela ikusita, ligur hizkuntzaren eta ligurtarren presentzia proposatu zuen.

Zer esan euskararen presentziaz ekialdeko Pirinioetan? Tovar (1959), Lafon (1973), Corominas (1972) aldekoak ziren, lehenengoa Tossa de Mar-eko mosaikoan agertzen den *Iturissa* izenaz baliatuz eta azkena toponimia mordo bat euskararen edo, hobeto esanda, euskararekin azaleko zerikusia duten ele-

² Erromatarren garaiko Liguria Galiako hegoalde eta Italia iparraldeko lurraldeetan kokatzen zen.

mentu batzuren bitartez azalduz. Baina, testuak kontsideratzen baditugu, ezin da aurkitu material guztiaren artean ia ezer ere euskal ikuspuntutik azal daitekeenik. Ia ezer, esan dut, eze Ensérunekeo bi grafito zahar desberdinetan honako testu hau irakur daiteke: **anaiosarenmí**, zeinetan **anaios** pertsona izena antzeman daitekeen. Untermannek Ligurian geroago dokumentatzen diren *Annaeus*-en familiakoa dela uste zuen; baina euskararen ikuspuntutik begiratzeko badugu, ez da zaila hor akitanierazko *Hanna*, *Hannaco* eta antzekoen ordaina ikustea: hau da *Atta* formatik *Attaio*- erakartzen bada, (*h*)*anna*-tik *anaio*- atera daiteke. Dena dela, hipotetikoa izateaz gain, kasu bakarra da, eta ezin dugu hortik ekialdeko Pirinioetan euskararen presentzia ziurtatu. Nire ustez aipatu froga guztiak (bai Corominasen toponimiako argudioak, zein lekuko bakan horiek ekar dezaketena) oso ahulak dira, Pirinioetako erdialde eta mendebaldean euskarak erakusten duen indarra eta bizitasunaren aldean.

Ekialdean, Hispaniako leku gehienetan bezalaxe, iberierazko testuak Augusto-ren garaira arte heltzen dira, guti gora-behera. Baina beste toki askotan ez bezalaxe, iberierazko testuei latinezkoek lekua hartzen dietenean, batbatean amaitzen da iberierazko izen propioen lekukotasuna; hizkuntzaren usadioa galtzarekin batera galtzen da aldi berean iberiarren pertsona izenen tradizioa. Ez da hori gertatzen Zeltiberian, esaterako, eta ezta ere Narbonaldean bertan galciar izen propioekin.

2. Pirinioetako bigarren zatia, erdialde eta mendebaldeko zatia hain zuzen, oso diferentea da gauza askotan. Hasteko, testuen lekukotasunaren aldetik, eremu antzua da, mapa batean hutsunea erakutsiko lukeena. Dena dela, azken urteotan agertu egin dira Nafarroan bi testu inportante, lehenagotik ezagutzen genuen Landeetako Aubagnan herrixkan agertutakoari gehitu behar zaizkionak: bata Arangureneko brontze hondatua eta bestea Andelo-ko mosaikoa.

Aubagnan-go bi inskripzioen zati puskak, dauden egoera txarragatik batez ere, oso zailak dira irakurtzen; hala eta guztiz ere, uste dut testu horiek ez zirela aurkitu izan diren tokian bertan ekoiztu, aldiz Mediterraneoeko lekuren batetik ekarriak zirela. Ezin dugu pentsatu, beraz, Untermannek pieza hauek editatu zituenean uste zuen bezala (MLH II, B 10), bertako hizkuntzan, akitanieraz edo euskara zaharrez, alegia, idatziak direnik: iberieraz idatziak dira eta arrazoi arkeologikoengatik Tivissa (Tarragona) inguruko lantegietako batean egin ziren, idatzi eta guzti.

Beste kontu bat da Andeloko mosaikoa, zer esan asko eman duena. Testua iberierazko idazkera garbian konposatua da eta Teruel probintziako Camin-

real herrian aurkitutako beste mosaiko baten antza du. Baina interesgarri dena zera da, testu biren egitura (eta, behar bada, funtzioa) berdina izanik, badirela aldaera interesgarriak; esaterako Caminrealeko testuak **ekiar** dakar, gainontzeko iberiar testuetan erruz agertzen den bezala, Andelokoak haren ordeztzeko **ekien** duen bitartean. Jende gehienak pentsatzen duena onartzen bada, hau da mosaiko hauetan idatzita dena artisauaren sinadura edo dela, orduan **ekien** euskarazko ‘egien’ bezala azalduko litzateke eragozpen handirik gabe. Egia da, perpaus horrek, euskara historikoaren ikuspuntutik, ez daramala ergatibo markarik, eta beste bi hitzak ere ez direla ondo ulertzen, baina, nire ustez, ez lirateke erabateko eragozpenak izango. Javier Velazaren esanetan, euskara zaharreko testu baten aurrean aurkituko ginateke. Erkaketa hau onartuko bagenu, hau da, Andeloko **ekien** forma euskarazko *zegien* formaren kognatotzat joko bagenu, ondorio batzu aterako lirateke euskal dialektologia historikoarentzat: Mitxelenak uste zuenaren kontra, bizkaierazko *egien* forma izango litzateke zaharrena, eta gainontzeko euskalkietako *zegien*, forma berritua. Dena den, iberierak berak, **ekien** forma eduki ez arren, erakusten ditu beste forma batzu, —antza denez aditz formak direnak—, egituraren aldetik **ekien** forma azal dezaketenak. Baina, hemen ere, ikusten denez, kasu bakar batengatik ezin da batera edo bestera erabaki.

Ez da testu gehiago, txanponetako izenak salbu. Ikusi ditugun lekuko urriak iberierazko idazkeran daude, eta gero, latin alfabetoa bertako idazkera epikorikoaren lekua hartuz hedatzen denean, agertzen diren testu guztiak latinez idatzita daude: ez da gure artean dokumentatzen, beraz, Zeltiberian bezala, latin alfabetoan idatziriko euskarazko testurik.³ Latinezko inskripzioetan transmititu diren izen propioek —gehienbat pertsona eta jainko izenak— osatzen dute zeharkako material guztia.

3. Izen propioak

Izen propioek (onomastikak) ematen duten informazioa, baliagarria izan arren, ez da beti behar bezain garbi, argi edo unibokoa izaten. Izen zahar hauek, bakan batzuk salbu, ez dute berez Antzinateko hizkuntzen egoera azaltzeko edota orduko euskararen egitura deskribatzeko indarrik, ez baldin badira lehenago hizkuntzalaritza konparatuaren ikuspuntutik sailkatzen eta argi-

³ Iruña-Veleiako testuei buruz, ik. beheago, § 5.

tzen. Puntu honetaz luze jardun nuen Bilboko azken Biltzarrean (Gorrotxategi 2008) eta horrexegatik ez naiz hemen luzatuko. Bakarrik oroitaraziko dut:

- a) Izen propioek, izen arruntek ez bezala, ez dute zentzurik, bakarrik erreferentzia. Zentzuak ematen duen kontrolik gabe, hitzen arteko konparazioa azaleko itxurara mugatzen denean, sortzen diren berdinketak kontaezinak dira.⁴
- b) Horrexegatik dira izen propioak hain labainkor hizkuntza konparaketa lanetan, azaleko berdinketarako duten erraztasuna ez baldin bazaie nolabait mugatzen kanpo eskakizun batzurekin: esaterako, zatien edo elementuen errepikapena, morfema konbinaketen koherentzia, adierazten duten erreferentziarekiko adostasuna (hau, pertsona izenen banaketa sexuaren arabera), leku eta denbora koordenadetako koherentzia, e.a.

Gauza jakina da, Akitania eta Ipar Pirinioetako lurraldeak, antzuak izan arren bertoko hizkuntzan idatziriko testuak eskuratzeko orduan, oso emankorrak direla pertsona eta jainko izenak latindar epigrafeetan idazterakoan. Izen multzo aberats horretatik atera izan da hizkuntzaren zabalguneari buruz zein hizkuntzaren beraren egituraren gainean dakigun guztia, dakigun hori gehiagoko hilbanetan hari sendoaz josia baino baldin badago ere.

Izen propioen eta latindar epigrafeen zabalgunea ikusiz, nabari da Akitania bera ere bi zatitan bereiz daitekeela: ekialdeko zatian, Garona ibaiaren isurialdeko lurretan, epigrafeak oso ugariak dira, eta ondorioz aukera handia da bertako onomastika ager dadin; mendebaldekoan, Aturri-Errobiko lurrak, Landak eta Euskal Herria batzen duen zati honetan, ordea, epigrafeak hiri-buruetan agertzen dira ia bakarrik, hala nola Akizen, Aire-sur-Adourren, Mont-de-Marsan-en, e.a., izen propio guztiak latindarrak izanik. Diferentzia hau harrigarri egin zitzaidan nire ikerketarekin hasi nintzenean (Gorrotxategi 1985), eta ez nuen banaketa honen antzeko kiderik aurkitu ... oraintsu arte.

Philippe Gardes arkeologoa, Akitaniako indusketetan agertutako zeramika puska asko erkatu ondoren, konturatu zen Ekialdeko Akitanian klase batekoak agertzen zirela (tornuan egindako barniz beltzeko zeramika) Mendebaldean beste klase diferente batekoak ziren bitartean (eskuz egindako zeramika). Zatiketa hori beste zenbait gauzatan ere antzeman daiteke: esaterako,

⁴ Kognatuak onartzerakoan, edozein hitzek dituen bi aldeak hartu behar dira kontuan: azaleko forma alde batetik eta zentzua bestetik; korrespondentziak edo egokitasunak eremu bietan eman behar dira aldi berean kognatutzat onartu ahal izateko.

Italiatik inportatutako ardo anforen distribuzioan: ekialdeko partean askoz ere ugariagoak dira hondarrak mendebaldean baino (Gardes 2002). Honek guztiak aditzera ematen du Erdialdeko Pirinio eta Gaskuinako lurraldeetan, Antzinateko *Convenae* et *Ausci* herrien eremuetan, alegia, mediterraniar kulturaren eragina askoz ere nabariagoa dela ozeanoaren inguruan ziren herrietan baino. Eta mediterraniar kulturaren ezaugarrien artean bada bat erromatarrek bere gailurreraino eraman zutena, idazteko gaitasuna eta grina, alegia.

Batzuk uste izan dute epigrafeen aberastasuna marmola eskuratzeko erraztasunean zetzala, eta ez beste inongo arrazoi kulturaletan, baina marmolaren ugaritasunak ez du azaltzen izen propioei buruz Akitaniako bi aldeetan ematen den banaketa: Ekialdean, oso ugariak izateaz gain, lurralde guztian zabaldurik aurkitzen diren epigrafeek bertako izen propio asko lekukotzen dute; Mendebaldean, berriz, bakarrik hiriburuetan konzentratzen diren epigrafeek, latindar izenak soilik transmititzen dituzte. Hau da, bigarren mailako edo zeharkako materialari buruz ere, Ozeanora begira den Akitania lurralde antzua suertatzen zaigu, mapan hutsunea erakusten duelarik.⁵

Honekin guztiarekin esan nahi dudana zera da, idazteko ohitura askoz ere zabalduagoa zela jendearen artean Akitaniako ekialdean mendebaldean baino, han hiriburutik urruti bizi zen jende xumea, artean erromatarren eskubide politiko eta horrekin oso lotua zen denominazio latindar ofizialetatik kanpo gelditzen zena, latinez idaztera —edo testuak idazteko agintzera— ohitu egin baitzen: ez ziren erromatar hiritarrak, ez zuten latindar izenik, baina hala eta

⁵ Datu zehatzagoak ematarren, hona hemen —azken aurkikuntzak gora-behera— duela urte batzu egin nituen kalkuluak.

Lugdunum-eko hirian aurkitzen dugun banaketa: 105 izen latindar eta 55 latindar ez direnak (hau da bertokoak edo indigenak). Pixka bat mendebalderago den Neste haranean bi multzoen arteko proportzioa berdindu egiten da: 20 izen latindar / 18 indigena.

Bagnères de Luchon-en gertatzen dena apur bat kurioa da, eze izen latindarren proportzioa oso altua da (35 izen) bertakoen aldean (3-4), baina inguruetako bailara eta haranetan, batez ere Oueil eta Larboust-eko haranetan, alderantziz gertatzen da: gehiago dira bertako izen indigenak (26) latindarrak baino (22).

Mendebaldeko hiriburuetan, ostera, esan dudana bezala, guztiak dira greko-latindarrak; baina bada oraindik nabarmendu nahi dudana beste kontu bat: latindarrak izateaz gain, erromatar hiritarren izenak dira, eta ez eskubide politikoak ez zituzten jende xumearenak. Akizen lekukotzen diren 12 pertsonetatik 11 hiritar erromatarrek —*cives romani*— dira, Antonii, Valerii eta Cornelii familiakoak, gelditzen den bakarra *Chrysantus* izeneko esklabua delarik. Berdintsu gertatzen da Aire-sur-Adourreko lekukoekin: bi pertsonen kasuak salbu, beste guztiak hiritarrak dira, Artii et Claudii familiakoak. Azken hauek, *Tiberius Claudius* izena daramatenak, Tiberio edo Klaudio enperadoreen garaian esklabu izatetik liberto izatera pasatu zirenen ondorengoak dira seguru asko. Bertakoak edo kanpotik etorritakoak? Hori ezin jakin.

gutziz ere erromatarrek oso gogoko zuten ohitura bat bereganatu zuten: euren izenak hilarri edo jainko bati eskainitako aldare batean jartzea.

4. Izen akitaniarrak eta galiarrak

Eta Akitaniako onomastika ez-latindar honek zer esaten digu bertako hizkuntzei buruz? Aspalditik dakigun gauza bat: jatorria kontuan harturik bi multzotan bana daitekeela: batzu galiarrak dira, Galiako gainerako tokietan lekukotzen direnen antzekoak, eta beste batzu, ordea, bertokoak, euskararen ikuspuntutik azal daitezkeenak. Zatiketa teorian sinplea da, baina askotan sailkapena egitea ez da batere erraza. Pare bat arrazoi daude hortarako.

a) Izen batzuk etimologia garbia erakusten duten bitartean, beste batzu ilunak dira ia ezer gutirekin erka daitezkeenak. Lehenengoan artean bi multzotako adibideak ditugu: *Toutannorigis* (gen) edo *Cintugnati* (gen) bezalako izenek galiar ezaugarri guztiak dituzte bere gain, *Sembeco* edo *Gisonten* bezalakoak akitanierazko multzoaren ordezkari bikainak diren moduan. Baina *Sillex* emakume izena edo *Xuban* jainko izena, bi adibide besterik ez aipatzearren, azalpen garbirik gabe gelditzen dira. Kasu hauetan, ikertzailearen gustuak edo ezaguerak pisu handia dute sailkapenean batera edo bestera egiteko momentuan. Neuk etimologia ezaguna ez duten izen askoren aurrean bigarren mailako irizpideak erabili ditut sailkapenerako lagungarri izan daitezkeelakoan, esaterako morfemen egitura edo eta fonema / grafia berezien presentzia. Ez dut asmatu zerekin lot daitekeen *Ulohoxo* (dat) izena, baina bokalen arteko aspirazio horrek eta desinentzia aurretik idazten den X letrak eskubide gehiago ematen dit akitanierazko multzoan sailkatzeko beste inon baino.

b) Izen batzuk anbiguoak dira jatorriaren aldetik, hau da, bi hizkuntzen aldetik azal daitezke. *Senius* bezalako izen bati, adibidez, bai akitanieraz bai galieraz aurki diezaiokegu azalpen zuzena, kasu batean euskarazko *sehi*, *sein* hitzekin lotuz (eta horien protoforma den **seni*-rekin), eta beste kasuan galierazko *seno*- 'zahar' elementuarekin erkatuz. Ikertzaileen gustu edo ezagueren arabera, denetik izan da. Mitxeleneri (1954) zor diogu sailkapen arazo honetan irizpide formal garbi bat ekarri izana, galiar hitza *-o* enborrekoa den bitartean euskal hitza *-i* enborrekoa dela, alegia; hori kontuan harturik, *Seni-cco*, *Seni-tennis* (gen) eta antzeko izenak akitanierazko zakuan sartu behar dira, dudarik gabe. Baina zer egin *Senius* bezalako izen batekin? Akitaniarra izan daiteke, jatorrizko *seni*- formari latinezko *-us* desinentzia gehitu ondoren sortu dena, eta badira beste adibide batzu bide hau sustatzen dutenak, baina, bestal-

de, oso normalak ziren indieuropar hizkuntza guztietan, galiera eta latina bane, *-io-* atzikiaren bitartez moldatutako eratorriak. Zenbait kasutan ez dira izango irizpide linguistiko hertsiak, testuingurua baizik, kontua alde batera edo bestera erabakiko dutenak. Esaterako, Saint-Gaudens inguruko inskripzio batean (CIL 174) agertzen den testuan [*Aherbelste deo Senius et Hanna Procul(i f?)*] = Aherbelste jainkoari, Seni eta Hanna Prokulo(ren semeak)?], jainkoaren izenak zein bigarren gizonezkoaren izenak sailkatzen dute gure izena akitanieraren esparruan. Bramevaquen aurkitutako inskripzioan [*I.O.M. Senius Conditus Congi f.v.s.*], ordea, giroa arras diferentea da: kasu honetan Jupiterri eskeintza egin dionak, II. mendetik geroagoko erromatar hiritar bati zegokion denominazio formula erabili du, hau da *nomen* (abizena) + *cognomen* (goitizena) + aitaren izena. Ikusirik goitizena zein, batez ere, aitaren izena galiarrak direla, pentsa daiteke *Senius* galiarazko *senos*-en gainean moldatutako erromatar *nomen*-a dela.

c) Errazagoa da dudarik gabe, horrenbeste lan eta buruhauste hartu beharrean, Akitaniako izen guztiak zeltiar leinukotzat jotzea eta, euskararen presentziari eta Aintzinateko idazleek esan zutenari jaramonik egin gabe, etimologia guztiak galiera edo zeltiar hizkuntzen bitartez azaltzea. Horixe egiten du, hain zuzen ere, X. Delamarre ikerlariak latindar inskripzioetako pertsona izen zeltiarrak batzen dituen liburu batean (Delamarre 2007). *Andero* eta eratorriak (hala nola *Anderexo*, *Anderex*) *Anderex(us)* forma maskulino baten azpian sailkatzen ditu, konturatu gabe gure izen hauek emakumezkoenak direla. *Andosto* bezalako izen bat **ando-sth-o-* etimologiaren bitartez azaltzen du, *Andos*, *Andossus*, *Andosten* eta *Andoxpon-* izenekin duen lotura zuzena argitu gabe. *Gisonten* eta *Cissonbon cissi-*, *cisso-* elementua daukan edozein izenen ondoan sailkatzen ditu, eta hala ia izen guztiekin. Hitzaurrean Evans (1967) eta Schmidt-en (1957) lan klasikoak izenen azalbiderako kontuan hartuko dituela esan arren, lan honek ez du zer ikusirik, punto honetan behintzat, Schmidtek erakutsi zuen joerarekin.⁶

Akitaniako pertsona izenek, beraz, hizkuntza egoera konplexua edo nahasia erakusten digute: alde batetik latina, denbora pasa ahala leku gehienetan indartuz joango dena; beste aldetik akitaniera eta galiera, elkarren lehian. Oso

⁶ Guri hemen interesatzen zaigun sailkapenean, testuetan zehar ezagutzen dugun euskara historikoak emango digu behar dugun laguntza. Esparru horretara mugatzen dugu, printzipioz, euskal etimologia. Honek esan nahi du, akitanierazko *Andero*, *Neskato* eta *Andossus* euskal jatorrizkotzat ematen ditugula, euren azken etimologia zelta hizkuntzetan edo gainerako tokietan egotea posible bada ere, *Zaldua* eta *Muxika* euskal izen kontsideratzen ditugun bezalaxe, azken iturria latinean duten arren.

zaila da jakitea, ahal izatekotan ere, nolakoa zen hizkuntza bakoitzaren esparrua, indarra, erabilera modua. Zenbait datu interesgarri nabarmendu baino ezin da egin.

1. Orokorrean esan daiteke zenbat eta ekialderago orduan eta galiar izenen kopurua handiagoa dela.

2. Gauza zaila izanik ere, eta neurri batean pixka bat aprioristikoa ere bai, antzematen da jatorriz galiarazko diren izen batzu akitanieraren baldintzetara makurtu direla; esaterako, *Versego*- izen galiarra B- batez idatzi da.

3. Inskrizio batzuk hizkuntza tradizio nahasketa familiaren beraren barruan erakusten dute: aita galiar izenekoa (*Cintugnatus*), ama akitaniarra (*Edunxe*) eta semea latindar izenekoa (*Titullus*), Arnesp, Valentine ondoko inskripzio batean irakur daitekeenez. Saint-Girons-eko beste batean joera berdina ikusten dugu: gurasoek daramazkiten izenek tradizio desberdineko direla adierazten duten bitartean, interesgarria da ikustea nola semeen belaunaldi-rako aztarna hori galdu den eta izen latindar garbiak atera diren garaile: *Rufus Sembexonis f.* aitarena, *Pussilla Trocci f.* amarena; eta *Rufinus Rufi f.*; *Primulus Rufi f.* semeenak. Adibide hauek bertako tradizio onomastikoaren galera nabarmen uzten dute.

4. Dena den, ematen du akitaniera nahiko indartsu mantendu zela bere esparruan inguruko bi hizkuntza hauen aurrean. Eta bizitasun hori dela eta, ez du zerikusirik Narbonaldean egiten zen iberieraren egoerarekin; oroit gaitetzen, han lehendabizi galiarak eta gero askoz ere indar gehiagorekin latinak iberiera bera ez ezik iberierazko pertsona izenen arrastoa ere desagertarazi zutela. Akitanian, zenbait epigrafe alderezko joera erakusten dute. Esaterako, Martres-Tolosane-ko epigrafe batean (*Annius Dunohoxsis f. Calva Cassilli f. uxor Andere filia*) ikusi daiteke nola amaren izena latindarra eta amaren aitarena galiarra izan arren, alabari izen akitaniar garbia jarri zioten. Berdin Caubous-eko harri batean, non *Condannossus* galiar izeneko batek alaba *Andere* deitu zuen, edo Saint-Bertrand-de-Comminges-ko batean, non *Silex* izeneko emakume batek, aitaren izenagatik (*Eppamaigi f.*) familia galiarreko zenak bere lau semeak akitaniar izenekin deitu zituen: (*Odox(us)*, *Lohitton*, *Andosten* eta *Andossus*).

5. Akitaniar onomastikaren iraunkortasuna Hagenbach-eko xaflek ere probatzen dutela uste dut. Idatzita daudenen artean 29 pertsona dokumentatzen dira; eta hauetarik 13 pertsonak (hau da %45ak) bere izenak eta bere aitarenak adierazteko ez dituzte latindar izenak erabili. Gainera, galiarrak urriak dira, gehiengo nabaria akitaniarrek osatzen dutelarik. Ezin da seguru egon

xafila hauen datazioaz, baina bi datu kontuan hartu behar dira: a) aurkikuntzaren testuinguruaren arabera III. mendearen bigarren zatian, 270. urtearen inguruan, eman ziren germanoen razzien garaian kokatu behar dira (beraz, hori da *terminus ante quem*), eta b) xafila guztiak hain homogeneousak dira estilo eta itxuraren aldetik, non zaila den pentsatzea urte askotako produkzioaren ondorioak direnik. Orduan, honek esan nahi du, Saint-Bertrand-etik ez urrun, III. mendearen erdialdean akitaniera indartsu bizi zela jende xumearen artean.

6. Ildo beretik jarraituz, oso esanguratsu egin zait J. L. Schenck-David arkeologoak erdialdeko Pirinioetako hiru mendi tontorretan kokatzen diren santutegiei eskeini dien lan eder batean (2005) dioena. La Coume de Arés-eko santutegian agertutako aldare guztiak dira anepigrafoak, bat izan ezik, *Sembus* izeneko batek *Ageio* jainkoari eskaintzen diona, hain zuzen. Santutegi honen datazioa aztertzerakoan, agertu diren txanpon eta zeramika pusketen arabera, Schenck-Davidek ateratzen duen ondorioa zera da: santutegia III. mendean hasi eta v. mendera arte egongo zela funtzionamenduan.

5. Hegoaldea

Behin baino gehiagotan idatzi dut Pirinioetako Hegoaldean, eta Hego Euskalherrian bereziki, euskararen presentzia ez dela leku guztietan antzematen, eta lekukoak agertzen direnean ere ez direla iparraldean ikusi dugun bezain ugari. Gauza jakina da urte askoan normaltzat eman den Euskal probintzietako eta Nafarroako euskalduntasun zaharra Gómez Morenok zalantzan jarri zuela lehenbizikoz. Izen propioak kontuan hartuz, hain zuzen, pentsatu izan zuen hiru probintziak eta Lizarra inguruko lurraldea zelta leinukoak zirela, geroago Erdi Aroaren hasieran euskaldundu zirenak baskoien inbasioei esker. (Gómez Morenorentzat baskoiak iberiar leinukoak ziren). Hirurogeitarren hamarkadaz geroztik hasi ziren Nafarroako zenbait lekutan euskara zaharraren lekuko izan zitezkeen izen batzu agertzen; guztien artean nabarienak Lergako hilarrikoak dira: *Ummesahar*, *Narhunges* eta *Abinsunhar*. Baina ez dira bakarrak: harrezkero bai Cinco Villas inguruan, bai mendebaldeko Lizarra inguruan ere agertu dira euskal ezaugarriak erakusten dituzten pertsona zein jainko izen berriak, hala nola, *Serhuhoris*, *Loxsa*, *Larrabe*, *Selatse*, *Itsacurrinne*, e.a. (Gorrotxategi 2002b).

Lizarra aldeko lekukoek planteatzen duten arazoa interesgarria da, Gomez Morenoren segizioek lurralde hori, Araba bezala, zeltiar hizkuntzen ere-

muan sartzen dutelako. Pertsona izenei erreparatzen badiegu soilik, ezin da ukatu gehienak, guztiak ez badira, indieuroparrak direla. Gasteiz ondoko Iruñatik zetorren harri galdu batean nekez irakur zitezkeen *Ilunna* izena salbu, ez dago Araban indieuropar ez den izenik San Roman-en duela guti agertu zen *Lutbelscottio* ez bada.

Baina jainko izenak beste kontu bat dira: Lizarra aldean agertu diren guztiak (lehen aipatutako *Loxa*, *Selatse*, e.a.) eta Arabako bakarra, *Helasse*, errazagoak dira baskoien hizkuntzatik azaltzen zeltiar hizkuntzetatik baino. Orduan, jainkoen izenen eta debotoen izenen arteko erkaketa egiten badugu, ikusten duguna zera da: Lizarra aldean, esaterako, debotoek zeltiar izenekoak izan arren, euskal jatorrizko jainkoei eskaintzen dizkietela aldareak. Horrexegatik uste izan dut jainko izenek geruza edo estrato linguistiko zaharrago baten ordezkari direla eta pertsona izenak berriago batenak. Bada, gainera, hipotesi honen alde beste argudio bat. Baskoien auzoko ziren zeltiberiarrek, beren nortasuna aditzera emateko orduan, zeltiar jatorrizko izenak erabiliaz gain, familia izena erabiltzea ere derrigorrezkoa zuten. Arabako karistiar eta barduloen lurraldetan, eta Lizarra aldean ez da familia izenen erabilera somatzen.⁷ (Gorrotxategi 2002d).

Francisco Villarrek, ostera, ez dio argudio honi pisu handirik aitortzen, edo onartuaren, uste du antzinatasun hierarkia batean toponimoak jainko izenak baino gorago daudela. Laster hitz egingo dut toponimoei buruz.

Aipatu besterik ez dut egingo Soria partean, Cidacos ibaiburuan, azken urteotan agertu den zenbait izen. Uste dut, eta halaxe idatzi nuen Euskaltzaindiaren azken biltzarreko agirietan (Gorrotxategi 2008), *Sesenco* bezalako izen bat Lergako *Ummesahar* bezain argia dela euskararen aldetik. Are gehiago, *Onse* andere izenaren eta *Onso* gizezkoaren arteko erlazioak azaleko antza baino gehiago erakusten dute: sexoarekin lotuta dagoen atzizki txandaketa, Akitaniako zenbait izenetan ematen den berbera, *-(x)so* atzizkia batez ere gizezkoetan eta *-se* bakarrik andrazkoetan.

Ez dut uste euskal munduan eta batez ere euskaren historian interesatuta dagoen edonork dagoeneko Veleia-Iruñako grafitoen berri entzun ez duenik. Aurkikuntza egin zuten arkeologoen arabera, euskal hitzak eta testu laburrak dakarzkiten grafitoak III-V. mendeen bitartean kokatu behar dira. Arkeologoen esaten dutena egia balitz, euskara zaharraren presentziaren eztabaida betiko erabakita gelditzeaz gain, euskalariak sekulako aukera izango genuke ezagutzen duguna baino mila urte aurreragoko euskara baten egitura azter-

⁷ Iruñako hilarri bateko kasu bakarra salbu.

tzeko. Ez da, beraz, txantxetako kontua. Baina hori guztia, grafitoak, edo nahiago dudan hitz bat erabili, ostrakak egiazkoak balira; zoritxarrez beldur naiz den dena iruzur penagarri bezain lotsagarri bat besterik ez dela. Jakina denez, kontua auzitan dago eta espero dut epe laburrean erabaki ofizial bat ematea.⁸ Bitartean, harik eta ostraken egiazkotasuna frogatu arte, uste dut ezin direla argudio gisa ezertarako erabili.

6. Zeharkako materiala eta bereziki toponimia

Hauxe da, nire iritziz, antzinateko lekuko zuzenetik atera dezakegun irudia. Baina, bada zeharkako materiala deitu dudan horren barnean erakargarritasun handiko materiala, leku izen edo toponimoak, hain zuzen. Betidanik erabili izan dira Hispaniako hizkuntza egoera zaharra argitzeko, Poza lizenziatua edo Humboldtengandik hasi eta gaur egun arte. Ez ditut konparatuko gure apologisten metodoak eta oraingo hizkuntzalariek erabiltzen dituztenak, baina zenbaiten lanak ikusi ondoren begitandu egiten zait pare bat gauzatan ez dabilzala elkarrengandik hain urrun: bata, lurralde zabal baino zabalagoetako toponimia azaltzeko duten grina, eta bestea azalbide gisa erabiltzen duten hizkuntza bat eta bakarra izatea. Jakina da gure apologistek euskararen bitartez azaltzen zutela Espainiako edozein toponimo; oraingo toponimista batzuke ere, modu berean, hizkuntza baten bitartez saiatzen dira Europako toponimia zaharrena azaltzen: Vennemannek euskara du gogoko, Villarrek indieuropa zaharra duen bezalaxe.

Villar, duela guti argitaratutako liburu batean (Villar & Prosper 2005) Espainiako Finisterretik Indiako Ganges alderainoko toponimo zahar asko azaltzen saiatzen da indieuperaren bitartez. Haren ustez, eremu zabal horretako toponimo asko bi eredu indieuperar ezberdinetan sailka daitezke, bere distribuzioarengatik iturburu diferentetik sortuak: A eredukoak Ekialde Erdian dute sorlekua eta neolito garaian Europa eta Asian zehar zabaldu ziren; B eredukoak ostera Iberian pilatzen dira eta hemendik, agian azken glaziazioaren ondoren, Mendebaldeko Europan zehar hedatu ziren. Ez dut orain hipotesi guzti honen kritika egiteko abagunerik.⁹ Baina Villarrek bere hipotesi oroko-

⁸ Azaroaren 19an Arabako Foru Aldundiak sortutako Batzorde Zientifikoak erabaki zuen Iruñan 2005 eta 2006ko kanpainetan agertutako ostraka “ezohikoak” faltsuak zirela. Ideia nagusiak (Gorrotxategi 2007, prentsan) lanean aurreratu nituen.

⁹ Ignacio Barandiarani eskaintako omenaldian jardun izan dut hortaz: (Gorrotxategi 2007-8).

rraren barruan Hego Euskalherriko toponimia zaharra tratatzen duenez gero, pare bat puntu ikutuko ditut.

Villarrek uste du euskara ez zela Hispaniako hizkuntza izan, soilik Akitaniakoa baino, handik pasatu zelarik hegoaldera garai ezezagun batean: ematen du K. a. i. mendean oso emeki hasi zen mugimendu hori guztiz indartu zela Antzinate berantiarrean, hau da VI.-VII. mendeetan. Villarentzat lehen aipatu ditugun pertsona izenek ez dute asko balio, Soriako muturrean agertu arren, zeren etorkin batzuren izentzat azal omen daitezkeen. Leku izenen artean, bakarrik *Pompaelo*-n aurkitzen den *-elo* zatiari aitortzen dio euskal jatorria. Gainera, toponimo horrekin zerikusi zuzena duten batzu, *Andelo* eta *Iluberitani*, hain zuzen, indieuropa zaharrekotzat hartzen ditu, saiakeran sekulako bihurrikeriak eginaz.¹⁰

Saikera osoan ahalegintzen da bere teoriaren mesederako diren etimologia paleoindieroparrak asmatzen, horretarako askozaz ere sinpleagoak diren iberiarrak edo eta zeltiarrak baztertuaz. Nire ustez, ez da batere arazorik *Deva*, *Tullonium*, *Nerva* eta beste toponimo zahar asko¹¹ zeltiar hizkuntzen aldetik azaltzeko, baina Villarren gustorako zeltiar hizkuntzak ez dira, itxuraz, berak nahiko lukeen bezain zaharrak. Operazio honen bidez bi helburu lortu nahi ditu aldi berean: batetik Euskadi eta Nafarroako toponimia zahar gehiena antzinasun handiko paleo-indieuropartzat jotzea, eta bestetik, genetista gehienek hipotesiak onartuz, azken Izotzaldiko euskal babesgunetik abiatutako kolonizazioaz baliatzea, B ereduko izen indieuroparrak Europan zehar barreiatzeko.

Hipotesi honek baditu nire ustez, filologiaren muina osatzen duten detailak aparte utzita, puntu ahul batzu:

a) euskara hegoaldetik uxatu eta soilik iparraldera mugatzeko erabili dituen argudio berberak erabil daitezke, guti gora-behera, euskara iparraldetik ere uxatzeko, eze hango toponimia aztertuko bagenu —pertsona izenak albo batera utziz— antzeko zailtasunak izango genituzke toponimo zahar gehienek euskalduntasuna frogatzeko. Gainera *-os* atzizkiz bukatzen diren toponimo ugariak, Rohlfsen garaitik akitanierazko eremuaren adierazle direnak, eta —gehienbat iparraldean kokatzen direnez gero bere hipotesiaren lagungarri izan

¹⁰ Harrigarria da, gainera, irakurtzea Iruñearen fundazio urtea (hau da K. a. 75. urtea) euskaldunen presentzia neurtzeko orduan *terminus post quem* gisa harzen duela (509. or.), edozeinek *ante quem* modura hartuko lukeenean.

¹¹ Toki izen modernoan artean *Ulzama* den bezalaxe.

ditzaketenak—, horiek ere arbiatu egiten ditu latinezko jatorria dutela esanez, *-osus* atzizkia, hain zuzen. Harritzekoa Rohlfs, erromanisten artean maisua zena, Villarren azalpen sinple hortaz ez jabetu izana! Xehetasun txiki batek eragozten zion, ordea: latinezko atzizkia, *-ō-* luzeduna izanik, ezin da gaskoierazko *-os* irekiaren eta aragoierazko *-ués* diptongoaren jatorria izan.¹²

b) Pirinioak ez dira inoiz igaroezineko muga izan. Mugaz bestaldeko jendea, Ipar Euskalherrikoa, Biarnokoa, Bigorrakoa eta haruntzagokoa, azken Izotzaldiaren bukaeran babesgune berbereko biztanle ziren, beraz hegoaldekoek bezala eskuhartuko zuten, gauzak hala izan balira, genetistek proposatzen duten kolonizazio horretan. Villarren argudioaren logikari jarraituz, ikusirik iparraldeko toponimia zaharra bera ez dela bereziki euskalduna eta Europan zehar barreiatutakoa indieuroparra dela, atera behar den ondorioa zera da: euskara Pirinioetan indieuroparra baino beranduagokoa dela, ez dakigula noiz eta nola beste nonbaitetik hona ekarritakoa.

Nire ustez hobe dugu lekukotasun zaharretatik hurbilago dauden hizkuntzekin moldatzea, antzinatasun handiko ur sakon eta ilun horietan murgiltzea baino.

Toponimiako gaiekin bukatzeko, bi puntu:

Akitaniako toponimia zaharra aztertzerakoan, atenzioa ematen du jatorriz galierazko den *-ates* atzizkiz eratutako horrenbeste tribu izen ikusteak. Hain dira ugariak, eze batzuren ustez akitaniar nortasunaren adierazle gisa uler daitezkeen. Iturri klasikoek aipatzen dituzten 30 herri izen ingururen artean 15ek edo atzizki hau darama (Duval 1975): oso ezagun ziren *Lactorates*, *Sotiates* bezalakoetatik hasi eta ilunago ziren *Sybillates*, *Cocosates* bezalakoetara.

Gainera, ez dira Akitaniako ekialdean soilik lekukotzen, eze Zesarrek aipatzen dituen *Sybillates* horiek zuberotarrak dira. Izen guztiak iturri klasikoetako galbahetik pasatakoak direnez gero, pentsa zitekeen galiarrek ezarritako izenak edo izendatzeko ohitura izan zitekeela, gero erromatarrek bereganatu egin zutena, hau da, azken finean exonimoak direla. Baina, duela guti Saint-Lary-tik gertu, inskripzio batean agertu dira atzizki honetaz eratutako bi populu izen: *Harexuates* eta *Neouates*. Interesatzen zaiguna lehena da, eze itxura denez akitanierazko *harexu* baten gainean moldatua baita, agian euskarazko *haritz* hitzetik *-zu* atzizkiaren bidez (Antzinatean jadanik *Oiasso*-n dena), azal litekeena. Lekuko honek erakusten digu *-ates* atzizkia bizirik zela

¹² Toponimo mota hauei buruz, ik. agiri hauetan bertan X. Ravierren ekarpena, “Réflexion sur la situation linguistique de l’Aquitaine ...”

akitanieraz eta ez zela bakarrik erromatar historiagile edo geografo eruditoek bertako populu indigenoak aipatzeko zuten ohitura.

Alderantziz, gaurko eguneraino heldu zaigun toponimoen artean *-os* atzizkiak bukatzen direnak ugariak izan arren eta, esan bezala, akitanierata-sunaren adierazle, ia ez dira agertzen Antzinateko dokumentazioan. Aipa daitekeen kasu bakarra *Itinerarium Antonini* izeneko iturri berantiarrean agertzen da, *Boios*, hain zuzen, beste iturrietan *Boiates* dena. Onartzen badugu **boio-* zeltiar errotik datozela biak, azkenengoan zeltiar deribatu tipiko bat izango genuke eta bestean haren akitanierazko ordaina.

Rohlf (1952, 1970) konturatu zen toponimo hauen oinarri gisa askotan pertsona izenak zeudela, eta askoren aztarna aurkitzeko gai izan zen. Batzuk akitanierazko erroak erakusten zuten, baina beste askotan latin izenak ere antzeman zitezkeen (adibidez, *Valerius*-etik eratorria den *Baliròs*, *Laurus*-etik *Lauròs*, *Vitalis*-etik *Vidalòs*, e.a...). Azken datu honi gehitzen badiogu mota honetako toponimoek erakusten duten zabalgunea eta bizitasuna, pentsatzekoa da erromatarren garaian eta beranduago ere indarrean egon zela eraketa mota hau. Orduan, galdetzekoa da mapa batean kokatzen ditugun toponimo guztiek erromatarren aurreko egoera ordezkatzeko ote duten edo, agian, ordutik hasi eta denbora luze batez garatzen joan den esparru baten seinale ez ote diren. Galierazko *-acum* atzizkiarekin gertatutakoa gogoan izanik, hau da, latinera pasatu eta bertan errotu ondoren ezagutu zuela benetako hazkundera, pentsa daiteke antzeko gauza bat gertatu zitzaiola akitanierazko *-otz* atzizkiari ere.

Dena den, zabalguneari dagokionean, nabarmentzekoa da mota honetako toponimoak ez direla hiru probintzietan lekukotzen. Badirudi Leizarango bailaratik mendebalera erabat ezezagunak edo oso urriak direla. Ez dakit nola interpreta daitekeen, hizkuntza zaharraren ikuspuntutik datu hau. Pentsa daiteke, euskalduntze berantiarren hipotesiaren aldeko arrazoia emanaz, akitanierak ez zuela Leizarango mugaz mendebaldera igarotzen. Gainera Leizarango harana gauza bat baino gehiagotarako izan zen muga. Burdin Aroko arkeologiak erakusten digunez, Pirinioetako lepogainetan oso ugari diren kromlech edo harrespilak Leizaran ibaiaren eta Andorra inguruaren bitartean aurki daitezke bakarrik (Peñalver 2001, 2004). Pirinioetako katemendiaren luzerari erreparatzen badiogu soilik, azpimarratzekoa da *-os* toponimoen eta harrespila mota honen zabalgunea berbera izatea. Aran edo Andorratik ekialdera iberieraren munduan gaude. Leizarango haranetik mendebaldera, beste batean ote?

Aipatu antzekotasuna handia izanik, ez da ahaztu behar harrespilak soil soilik goimendiko larre eta lepoetan aurkitzen direla, 500-600 metrotik gora, toponimoak Akitania osoan gehi Nafarroako eta Aragoiko eremu zabaletan aurkitzen diren bitartean. Zabalgunea ez da, beraz, erabat berdina.

Besterik, harrespilen mendebaleko muga Burdin Aroan kokatu baldin badaiteke, lehen esan dudanagatik, ez dakigu zehatz mehatz noizkoak diren *-os* toponimoak. Bakarrik erromatarren aurrekoak balira guztiak, hau da Burdin Arokoak, edukiko luke zentzua bi motatako datuok lotzeak.

Eman daitezkeen aukeretatik bat iruditzen zait ezinezkoa: aldi berean hiru probintzien euskalduntze berantiarraren eta toponimoen formazioaren berritasunaren alde egotea, Villar den bezala. Toponimo hauek eratzeko gaitasunak iparraldean Antzinate berantiarrean bizirik iraun bazuen, ezin da konprenitu zergatik ez diren hiru probintzietan aurkitzen, aldarrikatzen bada lurralde hauek iparraldeko euskaldunek euskaldundu zituztela erromatar eta bisigodoen garaian. Beraz, toponimo mota hau Burdin Aroko egoeraren adierazle da eta testuinguru horretan Leizarango ibaia akitaniera-baskoieraren mendebaleko muga da, edo bestela, nahiz ordukoa zein beranduagokoa izan, toponimoak eratzeko atzizki hau ez zen hizkuntzaren mendebaldeko eremuetan erabili.

Hortara bultzatzen nauen arrazoi bakarra da pentsatzea badirela hiru probintzietan datu apur batzu euskara zaharraren presentziaren alde uler daitezkeenak. Aipatu dudan jainko izenaz gain (eta ez ahaztu jainko izenak pertsona izenak baino estrato zaharrago baten ordezkari direla), uste dut latinetik mailegatutako zenbait toki izenek ere lagundu egiten duela bide honetan. Nire ustez, *Getaria* bezalako izen batek, adibidez, mailegu goiztiarra izan behar du, ez dituelako alboko erromantzeek erakusten dituzten bi aldaketa jasan: bokal arteko leherkari ahoskabearen ahostuntzea (*-t- > -d-* bihurtzea, hain zuzen) eta hasierako belarearen palatalizazioa (*ke- > tse- > se-*). Fenomeno bi hauek —batez ere bigarrena— emanak ziren bisigodoen garairako.

Ildo beretik Bizkaia partean gehien bat pilatzen diren *Sondika*, *Gernika* eta antzeko toponimoek erakusten duten *-ika* atzizkia ere bat etorriko litzateke planteamendu honekin; jatorria zeltiarra izan arren, askok uste duten bezala, euskarak mailegatu zuen garaian artean ahostundu gabeko forma zuen eta, horrexegatik, ezin latin berantiar baten bitartez euskaran mailegatu izan.

Ez dira datu asko eta kronologiaren aldetik ere ez dago erabateko ziurtasunik. Baina oker ez bagabiltza, eta erromatarren garaian euskara hiru probin-

tzietako hizkuntza bazen (ez derrigorrez hizkuntza bakarra), galdetu egin behar dugu orduan zergatik ez datorren bat Akitanian hizkuntzaren eremuaren adierazle den *-os* toponimoen zabalgunearekin. Erantzunak bat baino gehiago izan daitezke, baina guztiak bere alde ahulak dituztenak: a) euskara ipar-ekialdetik sartu zen, *-os* toponimoak eratzeko gaitasuna galdua zenean baina erromatarren garaia baino lehen (ikus berri dugu badirela latin jatorrizko izen propio batzuren gainean moldatutako toponimoak); b) akitaniera eta mendebaldeko euskara zaharra familia bereko bi hizkuntza hurbil baina diferenteak ziren: diferentzia bat *-os* toponimoetan zen (ezin da probatu).

8. Akitanierari buruzko zenbait arazo

Antzinateko lekuko urri eta zeharkako hauek ondo ezagutzen ditugun hizkuntzen bitartez azaltzen saiatu behar dugu. Akitanierazko aztarnak azaltzeko orduan orain arte euskara historikoak eman ditu tresnak eta ereduak. Izen propioetatik atera daitezkeen sistema fonologikoa eta morfemen banaketa, esaterako, Mitxelenaren berreraiketa klasikoarekin bat datoz puntu askotan. Are gehiago, Hagenbach-eko xaflek erakusten duten bezala (Gorrotxategi 2003), badaude lehen ezagutzen ez ziren aldaera batzu, S- batez idatzi beharrean X-ez idazten diren izen batzuren, hain zuzen, geroko euskarak ezagutzen duen palatalizazio adierazgarriaren lekuko izan daitezkeenak. Jakinaenez, X, XS, TS eta batzutan SS, morfema bukaerako afrikatu fortisa adierazteko erabiltzen ziren, eta horrexegatik, hain zuzen ere, teoriak eskatzen zuen bezala ez ziren hitz hasieran agertzen, ... Hagenbach-eko xafalak aurkitu ziren arte. Hemen, *Sembe*-ren ondoan *Xembe*- irakur daiteke, latinezko *Salinis*-en ordez *Xalinis*. Garbi dago X- hitz hasieran ez dela fonema autonomo baten adierazpidea, S-ren bitartez idazten zen txistukariaren aldaera baizik, geroko euskararen arabera bustidura adierazgarriaren adierazpena dena. Azalpen honek euskara historikoaren ezaugarri jakin bat Antzinatea eramaten du, eta akitanierazko eta geroko euskararen arteko harremanak sendotu egiten ditu.

Baina fenomeno honen ondoan badira beste puntu ilun asko argi eske daudenak. Nolako da orduko eta geroko leherkari aspiratuen arteko harremana, akitanierazko *Aber*- euskarazko *akher*-en ordaina bada? *Arixo* jainko izena euskarazko *haritz* hitzarekin lotzen badugu, zer gertatu zaio hasierako aspirazioari? Alderantziz, akitanierazko *Hanna* eta eratorriak euskarazko *anaia*-ren ordainak badira, kasu honetan euskarak galdu du aspirazioa.

Andos eta eratorriak, aspiraziorik ez dutenez gero, zailak dira eusk. *Handi*-rekin lotzen, baina Hangebach-eko xafra batean *Handos* irakur daiteke eta berriro zalantzak ere sortzen dira. Zer egin, bestalde, D- batez hasten diren izenekin, *Doxxi* (gen.) bezalako batekin adibidez, proto-euskara klasikoak ez baitzuen soinu hori hitz hasieran onartzen?

Honek guztiak akitaniera eta euskararen arteko harremanak berrikustera bultzatzen gaitu. Mitxelena baino lehenagoko ikerlari batzuk, Gerhard Bähr-ek edo J. Whaghmough-ek, esaterako, akitaniera galieraz kutsatutako hizkuntza nahasi bezala irudikatu zuten; beste batzuk, ordea, Rohlfsek edo Martintek, Pirinioetako *euskarién* edo *éuscaro* deitu zuten mundu zabalago baten zati bezala. Mitxelenak bere aintzineuskararen pareko egin zuenean, elkarren arteko harremana ikaragarri sendotuaz gain, geroko euskararen jatorritzat kontsideratu zuen, neurri handi batean.

Baina hemen irudi horretan nekez sar daitezkeen zenbait puntu aipatu ditugu, kanpo historiaren aldetik *-os* toponimoek suposatzen duten adostasun eza eta barne historiaren aldetik ustez kognatu diren batzuk planteatzen dituzten erronkak. Zailtasun horiei aurre egiteko orduan eta orain arte ilun gelditu diren hainbat puntu argitzerakoan, —Lakarra jaunaren lanei esker batez ere (Lakarra 1995, 2003)—, orain aintzineuskara berri batekin kontaktzen dugu. Teoria berri honen argitara berrikusi beharko litzateke akitanierazko material guztia, eze kontuan harturik aintzineuskara hau klasikoa baino askozaz ere zaharragoa dela, akitaniera perspektiba luzeago batean kokatzeko aukera ematen digu.

Bibliografia

- Corominas, J., 1972, *Tópica hispérica. Estudio sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*, Madril: Gredos.
- Delamarre, X., 2007, *Noms de personnes celtiques dans l'épigraphie classique*, Paris: Errance.
- Duval, P.-M., 1975, “Les peuples de l'Aquitaine d'après la liste de Pline”, *Revue de Philologie, Littérature et Histoire anciennes*, 213-227.
- Echaide, A., 1967, “Topónimos en *-oz* en el País Vasco español”, *Príncipe de Viana* 1967, 11-14.

- Evans, D. E., 1967, *Gaulish Personal Names. A Study of some Continental Celtic Formations*, Oxford.
- Garcia, D., 2004, *La celtique méditerranéenne*, Paris: Editions Errance.
- Gardes, Ph., 2002, “Territoires et organisation politique de l’Aquitaine pré-augustéenne. Pour une confirmation des sources”, in: Garcia, D. et Verdin, Fl. (arg.), *Territoires celtiques. Espaces ethniques et territoires des agglomérations protohistoriques d’Europe occidentale. Actes du XXIV^e colloque international de l’AFEAF*, Paris: Errance, 48-65.
- Gorrotxategi, J., 1985, “Lengua aquitana y lengua gala en la Aquitania etnográfica”, in: J. L. Melena (arg.), *Symbolae L. Mitxelena septuagenario oblatae*, [Anejo de Veleia, Series Maior 1], Vitoria-Gasteiz, t. I, 613-628.
- , 2002a, “Notas sobre las inscripciones ibéricas de Aubagnan (Landas, Francia)”, in: X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. Lakarra (arg.), *Erramu bona: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* [ASJU, Gehigarriak 44], Bilbo, 299-301.
- , 2002b, “Las lenguas de los Pirineos en la antigüedad”, in: *Els substrats de la llengua catalana: una visió actual* [Treballs de la societat catalana de llengua i literatura, 1], Bartzelona, 75-101: Societat Catalana de Llengua i Literatura.
- , 2002c, “Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara”, *XV Congreso de Estudios Vascos: Ciencia y Cultura vasca y redes telemáticas*, Donostia - San Sebastián, t. 1, 103-114: Sociedad de Estudios Vascos.
- , 2002d, “El área de Bilbao en la antigüedad”, in: A. Arejita, A. Elejabertía, C. Isasi & J. Otaegi (arg.), *Bilbao. El espacio lingüístico. Simposio 700 Aniversario*, Bilbo, 103-120: U. Deusto.
- , 2003, “Las placas votivas de plata de origen aquitano halladas en Hagenbach (Renania-Palatinado, Alemania)”, *Revue Aquitania* 19, 25-47.
- , 2007 prentsan, “Las Armas de la Filología: los grafitos vascos de Iruña-Veleia”, *Koldo Mitxelena Katedraren II Biltzarra*.
- , 2007-08, “Lenguas y Genes: aplicaciones a la prehistoria de la lengua vasca”, *Homenaje a Ignacio Barandiarán*, [= *Veleia* 24-25], Vitoria-Gasteiz: 1185-1201.

—, 2008, “Antzinateko euskararen nondik norakoa”, in: J. Gorrotxategi (arg.), *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarra R. M. Azkue eta J. Urkixoren omenez: Agiriak* (Bilbon, 2001eko irailaren 17-19an) / *XV Congreso internacional de Euskaltzaindia* (Bilbao 17-19 de septiembre de 2001). [Iker 19], Bilbo, 361-378.

Hesperia: <http://hesperia.ucm.es/hesperia/Generalidades.php>

Jimeno, R., Tobalina, E. & Velaza, J., 1998, “Una nueva ara romana procedente de Iscua (Navarra)”, *Epigraphica* 60, 290-294.

Lafon, R., 1973, “La langue basque”, *Bulletin du Musée Basque*, 58-116.

Lakarra, J. A., 1995, “Reconstructing the Pre-Proto-Basque root”, in: J. I. Hualde, J. A. Lakarra eta R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam, 189-206.

—, 2003 [2008], “Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción”, *ASJU* 37:1, 261-391.

Luchaire, A., 1876-77, « Les origines linguistiques de l'Aquitaine », *Bul. Soc. des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 349-423.

Mitxelena, K., 1954, “De onomástica aquitana”, *Pirineos* 10, 409-458 [Berrarg. in: Mitxelena, K., 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, J. A. Lakarra et al. (arg.). Donostia - San Sebastián: *ASJU Gehigarriak*, 10].

Peñalver, X., 2001, “El Bronce final y la Edad del Hierro en la Euskal Herria atlántica: cromlechs y castros”, *Complutum* 12, 51-71.

—, 2004, *Mairubaratzak Pirinioetako Harrespilak* [Munibe, Gehigarria 19], Donostia: Aranzadi.

Ravier, X., “Réflexion sur la situation linguistique de l'Aquitaine à l'époque prélatine et dans les débuts de la romanisation: acquis et perspectives nouvelles”. Agiri hauetan.

Rohlf, G., 1952, “Sur une couche preromaine dans la toponymie de Gascogne et de l'Espagne du Nord”, *Revista de Filología Española* 36, 209-256.

—, 1970 (2. arg), *Le gascon. Études de philologie pyrénéenne*, Tübingen: Max Niemeyer.

Schenck-David, J-L., 2005, *L'archéologie de trois sanctuaires des Pyrénées centrales. Contribution à l'étude des religions antiques de la cité des Convènes*. [Monographies d'archéologie pyrénéenne, Pirénéica 1], Saint-Bertrand-

- de-Comminges: Musée archéologique départemental de Saint-Bertrand-de-Comminges.
- Schmidt, K. H., 1957, *Die Komposition in gallischen Personennamen*, [Sonderabdruck aus der *Zeitschrift für Celtische Philologie* 26], Tübingen, 33-301: Max Niemeyer.
- Séguy, J., 1951, “Le suffixe toponymique *-os* en Aquitaine”, *Mémoires du troisième Congrès International de Toponymie*, II, 218-222.
- Tovar, A., 1959, *El euskera y sus parientes*, Madrid: Minotauro.
- Untermann, J., 1969, “Lengua gala y lengua ibérica en la Galia Narbonensis”, *Archivo de Prehistoria Levantina* 12, 99-161.
- , 1980, *Monumenta Linguarum Hispanicarum*. Band II: *Die Inschriften in iberischer Schrift aus Sudfrankreich*, Wiesbaden: Ludwig Reichert Verlag.
- Villar, F. & Prósper, B., 2005, *Vascos, celtas e indoeuropeos. Genes y lenguas*. Salamanca.